

2018. Ordenantza fiskalak. Behin betiko onarpena 2017ko abenduaren 22an izandako Bermeoko Udaleko Osoko Bilkuran BAO 2017/12/29. 247. zk., 6. zatia. Akats zuzenketak BAO 2018/01/24. 17 zk.

URIGINTZA LIZENTZIEN TASEA ARAUTZEN DAUEN ORDENANTZA FISKALA

1. artikulua. OINARRIA ETA IZAEREA

Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dauzan apirilaren 28ko 7/1985 Legearen 106. artikulua emondako ahalmenak erabilteko 9/2005 21. artikuluko 1 eta 4 ataletan ezarritakoagaz bat etorrira, udal honek *Urigintza Lizentzien Tasea* eskatuko dau ordenantza fiskal honetan xedatutakoaren arabera.

2. artikulua. ZERGA EGITATEA.

1.- Tasearen zerga egitatea udalaren jarduera teknikoa eta administratiboa da. Jarduera horren helburua lurzoruaren araubidearen eta uriko antolamenduaren ganeko Testu Bategina onetsi dauen apirilaren 9ko 1346/1976 E.D.ren 178. artikuluan lurzoruaren erabilerearen eta eraikuntzaren inguruan agertzen diran ekintzak egiaztatzea da, hain zuzen be ea udalerrian egin beharreko ekintzak bat datoza lege horretan eta Arau Subsidiarioetan eraikuntzen uriko arauakaz eta poliziagaz.

2.- Era berean, tasearen zerga egitatea da Udal Ordenantza egokian araututako obra txikien lizentziak emoteko udalaren jarduera teknikoa eta administratiboa.

3. artikulua. ZERGADUNAK ETA SUBJEKTU PASIBOAK

1.- Tasa honetako zergadunak dira zerbitzuak eskatu, eragin edo interesa daukien pertsona naturalak edo juridikoak, edo egoera arriskutsuan dagoan eraikineko elementuen jaubeak diranak, udal administrazioak lizentzia, egiaztigiri, txosten edo jarduketa eragin daualako.

2.- Era berean, Tributuen Lege Orokorraren 34. artikuluan aitatzen diran erakundeak edo pertsona fisikoak edo juridikoak izango dira zergadunak jaubeak badira, edo, halan danean, eraikuntzak edo instalazioak egiten diran edo lanak egiten diran higiezin errentariak.

3.- Edozelan be, zergadunaren ordezkioak, hau da, tasa ordaindu behar dabenean subjektu pasiboak eraikitzaileak eta kontratistak izango dira.

Horregaitik lizentzia eskatzean eraikitzailea edo kontratistea nor dan bere datu guztiekaz identifikatuta deklaratu beharko da.

4. artikulua: ZERGA EGITATEA.

1.- Honako honeek osotzen dabe tasearen zerga egitatea:

- a) Obrearen kostu erreala eta efektiboa, lur mugimenduen lanak, eraikuntza barrietako lanak, eta eraikuntzen kanpoko itxurea edo egiturea aldatzea, barrikuntzak, eraikuntzak lehenengoz erabilteko lanak, horreek erabilteko aldaketak eta eraiste lanak.

b) Bide publikoan jarten diran eta ikusgai dagozan propaganda kartelak eta errotuluak.

2.- Finkaturiko kostutik salbuetsita dago makineriari jagokon kostua.

3.- 1. atalean ezarritakoaren ondorioetarako, oinarri lez hartu behar dan aurrekontua lanaren betearazpen materialaren kostua da. Oinarria obrako aurrekontuak eta aurrekontu honetako betearazpenaren gastuak osotzen dabe, edo obraren betearazpen materialaren kostuak, edo elkargo ofizialaren oneretxia kostua altuagoa bada.

5. artikulua. TASA KUOTEA.

Egite ezargarri eta kostu-tarte baxetarako tasa kuota EPIGRAFE honeetan finkatutakoa da:

1- Epigrafea: Obra txikiak, kostuaren arabera:

1.1- 300 eurotik beherakoak	15,63 €
1.2- 300,01 euro eta 601 euro bitartekoak	31,27 €
1.3- 601,01 euro eta 1.502 euro bitartekoak	62,50 €
1.4- 1.502,01 euro eta 3.005 euro bitartekoak	146,58 €
1.5- 3.005,01 euro eta 6.010 euro bitartekoak	244,50 €
1.6- 6.010,01 eurotik gorakoak	293,49 €

2- Epigrafea: Obra handiak, kostuaren arabera:

2.1-Lehendik dagozan eraikinetako edo instalazinoetako obrak, 12.020 eurotik beherako kostua daukienak:

2.1.1- 601 eurotik beherakoak	69,14 €
2.1.3- 601,01 euro eta 3.005 euro bitartekoak	270,11 €
2.1.4- 3.005,01 euro eta 6.010 euro bitartekoak	324,51 €
2.1.5- 6.010,01 euro eta 12.020 euro bitartekoak	979,57 €
2.2-Lehendik dagozan eraikinetako edo instalazinoetako obrak, 12.020,01 eurotik gorako kostodunak	1.458,70 €

2.3- Epigrafea: Eraikin barriak

2.3.1- Zuinketa aktea	1.217,79 €
2.3.2- Obra lizentzia	1.902,74 €

3- Epigrafea: Lurzatiketak:

3.1-Urdaibaiko Patronatura bialdu barik	273,13 €
3.2- Urdaibaiko Patronatura bialduta	312,13 €

4- Epigrafea: lizentziaren luzapena

4.1- Obra nagusiaren lizentziaren luzapena	28,77 €
4.2- Obra txikiaren lizentziaren luzapena	164,78 €

5- Epigrafea: Lizentziaren titularidade aldaketa

5.1- Obra nagusiaren lizentziaren titularidade aldaketa	28,77 €
5.2- Obra txikiaren lizentziaren titularidade aldaketa	164,78 €

6- Epigrafea: Lizentzia emon ostean proiektua aldatzea

	164,78 €
--	----------

7. Epigrafea: Jarduera edo berari lotutako zerbitzuak iragarteko errotuloak edota kartelak jarteko lizentzia	31,21 €
--	---------

6. artikulua. SORTZAPENA ETA KUDEAKETA

1- Tasea ordaindu beharra zerga egitatea dakarren udal jarduera hasten danean sortuko da. Horretarako, edozelan be, jarduera hasi egin dala ulertuko da zergadunak edo bere ordezkotako subjektu pasiboak eskabidea edo beste agiriren bat aurkezten dauen egunean.

2- Tributu Kudeaketa Sailak egingo dau kitapena, udal organoen erabakietan oinarrituta edo espedientea izapidetu dauen sailak barri emonda.

3.- Tasea esandako edozein modutan sortuta, zenbatekoa ordaindu beharko da. Eskatzaileak uko egiteak edo gaxerexeteak ez dau ekarriko ordaindutakoa itzultzea ez egindako kitapena balio barik iztea.

4- Eraikuntza, instalazio edo obra egiteko kontratista bat baino gehiago dagoanean, aurrekontu edo kasuan kostu osoari jakon tasa kuotaren subjektu pasiboa aurrekontuan edo kasuan kostu osoan proportzino gehien daukan kontratista izango da.

7.artikulua. ADIERAZPENA.

1.- Urigintzako lizentziaren eskabideagaz batera, kasuan kasuko dokumentazioa aurkeztu beharko da, legeriak eta urigintzako planeamenduak eskatzen dabena hain zuzen be.

2.- Eskabidea egin ostean hasieran aurreikusten zan proiektua, obra edo instalazioa aldatu gura bada, udalaren baimena eskatu beharko da dokumentazio egokia aurkeztuta.

8. artikulua. KITAPENAK

1- Tributu Kudeaketa Sailak egingo dau kitapena, udal organoen erabakietan oinarrituta edo espedientea izapidetu dauen sailak barri emonda.

2- 1. eta 2 epigrafeetako kasuetan lizentzia emon eta gero, eskatzaileak adierazotako aurrekontuaren arabera egingo da behin behineko kitapena.

3- Udal administrazioak kostu erreala eta efektiboa egiaztatu ahal izango dau eskatzaileak adierazotako obrak amaitu ostean, eta egiaztapen horren emoitzaaren arabera, behin betiko kitapena egingo dau. Azkenean, kendu egingo da behin-behingo kasu bakoitzean ordaindutakoa.

4- Edozelan be, obra handietako titularrek obren kostu erreala eta efektiboaren adierazpena aurkeztu behar dabe erabilerearen edo bizigaitasunaren lizentziaren eskabideagaz batera, halan danean, eta administrazioak behin betiko kitapena egingo dau.

5- Behin-behineko kitapenen emoitza zenbatekoak behin betiko kitapenetatik aterako dira, baina horreetako bakotxa kobretako jardunbidea aparte egingo da.

6- Lizentziaren titularidade aldaketaren kasuan behin betiko kitapena azken titularrari egingo joko, behin-betikoaren zenbatekoa behin betikoan kontura erregistratuta.

9. artikulua.HOBARIAK

1.- Honeek hobariak ezarri dira:

a) Kuotearen %50 fatxadak margotzeko lizentzietan.

Hobariok zuzenean aplikatuko dira tasearen kitapena egitean, eta hobariaren oinarritzat margotze lanen kostua baino ez da hartuko lizentzia berean beste lan batzuk edo fatxadak margotzeagaz zerikusirik ez daukien lanak badagoz.

b) Kuotearen %90 eraikinak birgaitzeko lanetan; alde zaharreko Birgaitze Osoko Aldeetan egiten diran lanei deritze birgaitzeko lanak.

Hobaria zuzenean aplikatuko da behin-behineko kitapenean, lizentziaren eskabidea beren beregi jasota izten bada hobaria izateko eskaria, Bermeoko Udalak luzatutako egiaztagiriaz batera. Egiaztagiri horretan, Birgaitze Osoko Aldeko lanak dirala egiaztatuko da.

c) Kuotearen % 100, abelur jarduerak daukien baserriak birgaitzeko edo instalazioetarako obra lizentzietan

Hobaria zuzenean aplikatuko da behin-behineko kitapenean, beti be lizentziaren eskabidean beren beregi jasota izten bada hobariaren eskaria, abelurren jardueretan jarduten dala egiaztatzen dauen agiriagaz batera.

d) Kuotearen %75 errotuluak euskeraz jarteagaitik.

2. Aurreko ataleko hobariak aplikatu behar badira be, behin-behineko kitapena egin aurretik, kasuan kasuko agiri eta guzti berariaz eskatzen ez badira, behin betiko kitapenean aplikatuko dira, eta kasu bakotxean jagokozan itzulketak eragingo daz. Kasu horretan ez da etengo behin-behineko kitapena kobretako prozesua.

3.- Birgaitze lanak diran ala ez zalantza dagoanean, udal arkitektoak eginiko txostenak lehenetsiko dira.

4- Artikulu honetan zehazturiko hobarien jatorriaren inguruko zalantzaren bat badago, alkatetzak emongo dau erabagia, eta erabagia betearazlea izango da.

5- 2013ko apirilaren 11ko sutean kaltetutako higiezinak zaharberritzeko, birgaitzeko edo eraikitze obretan % 100eko hobaria eukiko dabe.

Obra lizentzia eskariagaz batera eskatu ahal izango dabe hobaria, beti be, kaltetua izanaren ziurtagiria aurkeztuta.

Sutearen ondorioz partzialki bakarrik edo sua amatatzeko botatuko urak kaltetutako kasuetan egin beharreko obrak dirala-eta kaltetutakoak konpontzeko ez diran beste batzuk be egiteko aprobetxatuz egiten badira, horreek ez dabe

hobaririk eukiko. Halanda ze, horrela bereztuta deklaratu beharko dabe interesdunek.

10. artikulua. LIZENTZIA ESKUALDATZEA EDO PROIEKTUA ALDATZEA.

5. eta 6. epigrafeetakoak egite ezberdin bi legez aurreikusita dagozan ezkerro, lizentziaren eskualdatzeagaz batera hasikerako proiektuaren aldaketa be eskatzean, epigrafe bietakoak ordaindu beharko dira eta kitapen bereiztuak egingo dira.

11. artikulua. ZERGA HUTSEGITEAK ETA ZEHAPENAK

Zerga arau-hausteen eta horreen kalifikazio desberdinen inguruan, baita kasuan kasuko zigorren inguruan be, Tributuen ganeko Foru Araua eta Zergen Kudeaketa, diru-bilketa eta zerga ikuskapenen ordenantza orokorreko arauak aplikatuko dira.

Azken xedapena

Ordenantza hau 2015eko martxoaren 4an egindako Osoko Bilkuran onetsi eban Udaltzarak. 2015eko martxoaren 23an argitaratu zan BAOn 55. alean eta alegazinarik ez aurkeztean 2015eko maiatzaren 4an sartu zan indarrean.